

PREK

EKONOMIA SUSPERTZEKO PLANA PLAN DE REACTIVACIÓN ECONÓMICA

donostiasustapena
fomentosansebastian

Donostiak 5 milioi euro baino gehiago inbertituko eta 800 lanpostu inguru sortuko ditu Ekonomia Suspertzeko Planaren bigarren fasearekin

- Merkataritza eta ostalaritzan, enpleguan, ekintzailtzan, enpresetan eta eredu ekonomikoaren eraldaketan eta erronketan ipiniko da dirua.
- Erosketa bonuen beste sorta bat aktibatuko da, eta kontziliazio bonuak estreinatuko dira, egoera txarrean dauden familietako adingabeak artatzeko.
- Laguntzak Donostia Sustapenaren webgunean eskuratu ahal izango dira: www.fomentosansebastian.eus.

Donostiako Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoak, Donostia Sustapenaren bidez, hiriko Ekonomia Suspertzeko Planaren bigarren fasea ipiniko du abian. Plan horrek hainbat laguntza neurri jasotzen ditu, COVID-19ak sorturiko krisiaren ondorioz Donostiako ekonomian aurreikusten den bigarren inpaktu ekonomikoa arintzen saiatzeko. Laguntza pakete horren helburua lan merkatua suspertzea da, kontratazio berriei laguntzeko neurrien bitartez, bai sektore publikoan, bai pribatuan. Aurreikuspenen arabera, 800 lanpostu inguru sortuko dira.

Pakete horren barruan bildutako neurrien artean ageri dira, bestek beste, kontsumo bonuen beste sorta bat martxan ipintzea merkatari eta ostalariei laguntzeko, bi sektoreotara zuzenduriko eraldaketa digitalerako laguntzak ematea, enpresa berriak sortzeko aholkularitza eta laguntzak eskaintzea, negozioa birbideratzea erabakitzen duten ETEentzako laguntza, eta hiriaren erronkak online lantzeko lankidetzeta plataformen garapena. Neurri horiek guztiak urrian bertan hasiko dira aktibatzen, eta 5.235.205 euro bideratuko dira hartarako. Donostiako Udalak (Donostia Sustapena), Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak finantzatzen dute plana.



Eneko Goia Donostiako alkateak administrazioen arteko «ahalegina eta lankidetzaz» nabarmendu ditu, baita planak sektore pribatuarekin duen lotura ere, «benetan eraginkorrak diren programak» antolatzen, eta, hari esker, enpleguen galera moteltzeko. Alkatearen esanetan, jarduera ekonomikoaren motelaldia bizi dugun testuinguruan zabalduko da bigarren fasea, ikusirik «oraindik ere denbora behar dela krisiak utzitako ondorioetatik leheneratzeko». Hori horrela, Goiak azpimarratu du Donostiako Udalak neurriak hartu zituela pandemiaren lehen kolpean, eta, orain, ekonomia suspertzeko eragile rola finkatu duela, jarduera eta diru fluxua kolperik handiena bizi duten sektoreetara mugiaraztea helburu duen programa sorta baten bidez. Ildo horretan, alkateak balioetsi du harrera ona izan zutela saltokietan eta ostalaritzan baliatzeko kontsumo bonuek eta halako ekimenek. Horrekin batera, gaineratu du enplegu planek «eraginkortasun egiaztatua» dutela lan merkatutik baztertuta dauden kolektiboetara lanerazten laguntzeko.

Bestalde, Ekonomia Bultzatzeko zinegotzi Marisol Garmendiak honako hauxe nabarmendu du: «Plan honek tresna erabilgarria izan nahi du berriro ere hiriko saltoki eta negozio txiki askorentzat; izan ere, pandemiaren lehen olatuari eutsi ondoren, kezka ikusten dute haien egoera, osasun krisia berriro agertzearen ondorioz ugaritzen ari baitira murrizketa neurriak. Saltoki txikiei laguntzeko beharrezko defendatzaile sutsuak gara, Donostiako ekonomiaren muin eta familia askoren enpleguaren ezinbesteko ardatz gisa. Azpimarratu nahiko nuke, gainera, sentikortasun bereziz egin dela plan hau, diskriminazio positiboa sustatzen baitu emakumeen eta 45 urtetik gorakoen alde, baita langabe gehien dituzten eta jarduera ekonomikoan inpaktu handiagoa jasan duten hiriko auzo eta eremuen alde ere».

Horrekin loturik, hauxe adierazi du Alfonso Gurpegi Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarteratzeko zuzendariak: «Nabarmendu nahiko nuke erakundeok lurraldeko eragile sozial eta ekonomikoekin egiten ari garen elkarlana, Ekonomia Suspertzeko Plana eta tankerako ekimenak aurrera ateratzeko. Esandako plan horrek enplegua sustatzeko partida garrantzitsu bat biltzen du, hori baita une honetan herritarrak gehien kezkatzen dituen gaietako bat. Gure aburuz, enplegua da lehen mailako lehentasun politiko, sozial eta ekonomikoa, eta eskura ditugun bitarteko guztiak mobilizatuko ditugu COVID-19ak eragindako krisia arintzeko. Pertsona guztiek kalitatezko enplegua izatea lortu nahi dugu, bizi ibilbide duina egin ahal izan dezaten».

Bestalde, Imanol Lasak azpimarratu duenez, "krisi hau gainditzeak lankidetzaz areagotzea eskatzen du, maila guztietan, eta lehentasunak ondo finkatzea. Plan honek bi baldintzak betetzen ditu. Ibilbide-orri honen bidez, Covid-aren krisialdiaren ondorioz okerren dauden eta hirian pisu handia duten sektoreei laguntza emateaz gain -merkataritza eta ostalaritza, esaterako-, ehun ekonomikoa eraldatzea sustatzen du Udalak, digitalizazioa eta berrikuntza bultzatuz. Gure lehiakortasuna eta, horrekin batera, gure etorkizuneko ongizatea bermatzeko, ezinbestekoa da epe motzari zein luzeari erreparatzea. Ziur nago inpaktua oso positiboa izango dela".

COVID-19aren pandemiak ekonomian eta gizartean izango duen inpaktua ikusita, Donostiako Udalak Ekonomia Suspertzeko Planaren bigarren fasea aktibatuko du, ekonomiari ahalik eta kalte gutxien eragiteko eta, osasun larrialdia gainditu ondoren, azkar suspertzeko premia ekonomiko eta sozialekin. Laguntzei buruzko informazio guztia eskuratzeko eta eskabideak aurkezteko (urrian zehar aktibatuko dira) Donostia Sustapenaren webgunera jo daiteke (www.fomentosansebastian.eus). Era berean, interesdunek telefono bidez ere jaso ahalko dute arreta, 943 482 800 telefonoan, bai eta web orrian bertan ere, zalantzak argitzeko.



Hiri berritzailea
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus

Planak bost jarduera ildotan eragiten du:

1.- Enplegua. Planak 2.951.022 euroko aurrekontua du, eta kontratazio berriei laguntzea aurreikusten du, hala sektore publikoan nola pribatuan.

- Enplegu publikoa sustatzea: Lanbiderekin lankidetzan, 70 langabe kontratatzea planteatzen da, Udalaren eta gizarte erakundeen bidez.
- Gazte enplegua sustatzea. Lanbideren 2014-2020 aldirako Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren esparruan, lan aukerak eskainiko dizkie hirian langabezian dauden gazteei.
- Kontratatzeko laguntzak. Lanbiderekin lankidetzan, tokiko sektore pribatuak 300 kontratazio inguru aktibatuko ditu.
- Gazte kualifikatuak kontratatzeko laguntzak. Hiriko enpresa eta zentro teknologikoetan kontratatzeko 35 laguntza, proiektu berritzaileak gauzatzeko.
- Reaktiva-T programa, lan aktibazioa sustatzeko. Lan merkatutik berriki kanporatuta geratu diren pertsonentzako orientazio eta prestakuntza bizkorra. Aurreikuspenen arabera, 75 lanpostu berri sortuko dira.
- Reaktiva-T+45 programa. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan, 45 urtetik gorako pertsonak lan merkatuan sartzea bultzatuko du. Aurreikuspenen arabera, 20 lanpostu berri sortuko dira.
- Reaktiva-T programa Donostia ekialdean. Donostia ekialdeko auzoetan orientazioa, prestakuntza, ekintzailtza, jarduera ekonomikoa eta kontziliazioa sustatzeko laguntza.

*Kontziliazio bonuak. Egoera ahulean dauden eta eskola orduetatik kanpo adingabeei arreta eman behar dieten familien artean banatuko dira. Hainbat arretagune ezarriko dira hirian, eskolaz kanpoko laguntza jasotzeko.

2.- Merkataritzarako eta ostalaritzarako laguntzak. Pandemiak eragindako krisiak gehien kaltetutako sektoreetako bi diren aldetik, 1.038.970 euroko aurrekontua izango dute.

- Donostia Market Plaza plataformak gaitutako kontsumo eta garapen bonuak, funtzionalitate eta zerbitzu berriekin, bezeroentzat zein establezimenduentzat.
- Lokalak egokitze eta eraldaketa digitalerako laguntzak. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan, inbertsioak eta azterlanak egingo dira, bi ildo horietako negozioak egokitze aldera.
- Hitzarmenak sektore taldeekin (merkataritza eta ostalaritza elkarteak), elkartekideen artean kultura digitala ezartzeko, sustapen kanpainak egiteko, enpleguari eusten laguntzeko aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteen (ERTE) eta jarduera uzteagatik langile autonomoentzako prestazioen (CATA) ondoren, lehiakortasuna eta ekintzailtza hobetzeko, prestakuntzarako eta web mintegiak antolatuzko.
- Soluzio teknologikoak merkataritza eta ostalaritza sektorerako. Laguntza eta aholkularitza teknologikoa merkataritza eta ostalaritza guneak diseinatzeko eta berregokitze. Aurreikuspenen arabera, 100 lanpostu berri sortuko dira.



3.- Enpresak sortzen laguntzea. 525.513 euroko aurrekontuarekin, areagotu egingo dira prestakuntza zerbitzuak, adituen aholkularitza, bideragarritasun analisiak eta abar, eta, aurreikuspenen arabera, litekeena da 200 lanpostu inguru sortzea.

- Enpresak sortzeko laguntzak, zenbait kolektiborentzako hobari bereziekin (4.000 eurokoak ere izan litezke), bai eta proiektuetarako orientazio, prestakuntza eta aholkularitza zerbitzuak ere.
- Reaktiva-T programa ideia ekintzaileetarako. Onlineko baliabideak, web mintegiak, aholkularitza eta talde jarduerak.
- Inkubagailua. Hasierako faseetan dauden proiektuak garatzen laguntzea.
- Ekin+ ekintzailetza programa. Balio erantsi handiko jarduera eta kalitatezko enplegua sortzeko gaitasuna duten proiektuetarako deialdia. Laguntza aditua eta aholkularitza eskaintzen zaie, batez ere pandemiak eragindako enpresa eta sektoreetarako soluzioetan.
- Ekintzailetza eta enpresa zentro birtuala. Baliabideak, orientazioak, programa espezifikoetarako sarbidea, aholkulariak, jardunbide egokiak, ekintzaileen komunitatea eta eragile eta enpresekiko konexioa bilduko dituen webgunea.

4.- Enpresa proiektuak garatzeko eta mantentzeko laguntza. Kapitulu honetarako zenbatekoa 619.700 € da.

- Jarduerari eusteko eta dibertsifikaziorako laguntza ekonomikoak. Enpresa txiki eta ertainetara zuzendurik, berrikuntzagatiko eta proiektuaren irismenagatiko hobariak ez ezik lehiakortasuna hobetzeko eta enpleguari eusteko ekintzetarako dirulaguntzak ere biltzen dituzte. Diruz lagundu beharreko kontzeptuak izan litezke negozio aholkularitza, langileen prestakuntza, barne ekintzailetza, produktu berriak eta abar.
- Garapen teknologikorako zerbitzuak eta laguntzak. Tokiko ikerketa zentroen laguntza teknologikorako bonuak (Ceit, CIC biomaGUNE, CIC NanoGUNE, ISS Biodonostia, Tecnalia, Tecnun eta Vicomtech).
- Enpresa proiektuetarako aholkularitza eta laguntza, lehiakortasuna hobetzeko eta negozioa eraldatzeko alderdi erabakigarriari dagokienez.

5.- Eredu ekonomikoaren eraldaketa eta erronkak. COVID-19ak eragindako krisiaren inpaktuaren ondorioz, beharturik gaude eredu ekonomikoak birpentsatzera. 100.000 euroko aurrekontuarekin, hainbat ekimen landuko dira:

- WeekINN Berrikuntzaren Astea antolatzea, gure hiria bestelako gako ardatzen inguruan eraikitze gidalerroak emateko gune gisa (pertsonek, teknologia eta lankidetzaren eredu berriak).
- Hiriko erronkak online lantzeko plataforma. COVID-19aren osteko egoerei buruzko lan prozesu bat garatzea, gazte, ikasle eta goi mailako hezkuntzako kolektiboekin, enpresen eta hiriko ekosistema zientifiko-teknologikoaren parte hartzearekin.
- Osasun arloko proiektu berritzaileei laguntzeko plataforma, Biodonostia Institutuarekin lankidetzan.

Diagnostiko ekonomikoa eguneratzea

Aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteen bilakaera positiboa da Donostian. Azken datuen arabera (abuztukoak), maiatzean izapidetutako espedienteetatik (10.220), % 16k baino ez dute aktibo jarraitzen (1.676). Horietatik 347 ostalaritzakoak dira, 200 txikizkako



Hiri berritzailea
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus

merkataritzakoak, eta 150 administrazio jarduera eta zerbitzu osagarrietakoak. Epigrafe horren atzean, aldi baterako lan eta enplegu agentziak, alokairuak eta bidaiak agentziak nabarmentzen dira. Ehundik gora kasu daude manufaktura industrian, eta hiriko industrialdeetako lantegi txikiei eragiten diete.

Gizarte Segurantzako afiliazioek beheranzko joeran jarraitzen dute, eta abuztuan izan du erregistrorik okerrera, 7.235 afiliatu galdu baitziren (% 6,1eko jaitsiera) otsailarekin alderatuta. Hala ere, 2020rako baldintza normaletan aurreikusita zegoen afiliazioen igoerari buruzko datuak hartzen badira, galeraren aurreikuspena % 8koa da (9.433 afiliatu gutxiago, alegia). Ia guztiak besteren konturako langileak dira, hau da, Gizarte Segurantzako araubide orokorrekoak.

Martxoan eta apirilean galdu zen enplegu gehien. Iraila izan da langabeen kopuruak behera egin duen lehen hilabetea: guztira 9.526 langabe zenbatu ziren. Generoari dagokionez, langabeziak antzeko inpaktua izan du gizonen eta emakumeen artean. Une honetan, emakumeak dira langabe guztien % 53.

Langabezia datuak adinaren arabera aztertuz gero, adin tarte guztietan daude langabe gehiago. Balio absolututan, 25 eta 44 urte bitarteko pertsonak dira kaltetuenak (1.000 enplegu eskatzaile berri inguru), eta gazteei eta 45 urtetik gorakoei dagokienez, berriz, 500 enplegu eskatzaile gehiago. Guztizkoaren gaineko ehunekoaren banaketari erreparaturuz gero, 45 urtetik gorakoak % 50etik jaitsi dira, bitarteko adina % 41 baino gehiago da, eta gazteek egin dute gora gehien portzentajearen (% 9,6).



Hiri herritzailea
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus